



TOLOSAKO  
UDALA

## **MUSIKA ESKOLAN ALDI BATERAKO IZAERAZ ARITUKO DEN DULTZAINAKO IRAKASLE BAT HAUTATZEKO OINARRIAK.**

### **1.- DEIALDIAREN HELBURUA.**

Deialdi honen helburua honako hau da: Eduardo Mokoroa Udaleko Musika Eskolan dultzaina irakasteko aldi baterako DULTZAINA IRAKASLEA hautatzea lehiaketa-oposizio bidez.

Halaber, hautaketa prozesua gainditzen duten izangaien zerrenda, Tolosako Udalak lan poltsa bezala erabili ahal izango du sor daitezkeen behin-behineko beharrei erantzuteko.

Tolosako Udaleko pertsonalari dagokion Lan Hitzarmen bera aplikatuko zaio lanpostuari. Eguneko lanaldia Tolosako Udalak ezarritakora egokituko da, lanpostuaren ezaugarriak eta beharren arabera.

### **2.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK.**

Lanpostua betetzeko hautatutako izangaiari lanegun partzialeko lan kontratua egingo zaio, % 40ko lanaldiarena hain zuzen ere, eta printzipioz, 2018-2019 ikasturterako. Asteko lan orduak, matrikulatutako ikasleen banaketa egin ondoren finkatuko da eta gehienez 10 ikastordukoa izango da.

### **3.- BETEBEHARRAK.**

Hautaketa probetan parte hartzeko hurrengo baldintza hauek bete behar dituzte izangaiek:

- a) Europar Batasuneko edozein Estatuko nazionalitatea izatea.
- b) 16 urte beteta izatea.
- c) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak materia honetan klaseak emateko habilitazioa edukitzea



TOLOSAKO  
UDALA

d) Euskarazko 3<sup>o</sup> hizkuntz eskakizuna egiaztatzea. Betebehar hau dagokion frogaren arabera egiaztatuko da. Titulazioa duten izangaiek froga honetan salbuetsita egongo dira, honako titulazio bateko fotokopia aurkeztuaz:

- 1.- 3<sup>o</sup> HE egiaztatua
- 2.- EGA edo baliokideak diren titulazioak edukitzea
- 2.- Hezkuntza 2<sup>o</sup> HE edukitzea.

e) Postuak bere-bereak dituen lanak egitea eragozten duen ezintasun fisikorik nahiz psikikorik ez izatea. Betebehar hau egiaztatzeko, azterketa medikua egingo zaio aukeratua izan den izangaiari.

f) Diziplinako espediente bidez Administrazio Publikoetatik banandua ez izatea, eta funtzio publikoak bete ahal izatea galarazita ez izatea.

#### **4.- ESKAERA AURKEZPENA ETA DOKUMENTUEN EGIAZTAPENA.**

Hautespen probetan esku hartzeko eskaerak hartarako jarritako ereduak betez egingo dira. Eskaera ereduak Udaletxeko Informazio eta Erregistroan egongo dira. Haiekin batera hurrengo agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) NAaren fotokopia.

b) 3<sup>o</sup> oinarrian, c) atalean eskatzen den titulazioaren fotokopia

c) 3<sup>o</sup> oinarrian, d) atalean eskatzen den euskarazko titulazioen fotokopia, euskara frogatik salbuetsita geratzeko.

d) Era berean, alegatzen diren balorakizun guztien frogagiriak eskaerarekin batera aurkeztu behar dira. Ez dira baloratuko instantzian zehaztu eta frogatzen ez diren merituak, beti ere eskaerak aurkezteko epearen barruan.

Eskaerak Tolosako udaleko Erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira, oinarri hauen iragarkia gutxienez Lurrade Historiko honetako bi aldizkarietan argitaratzen denetik 15 egun naturaletako epean.

#### **5.- HAUTAGAIEN ONARPENA**

Onartu eta baztertuen zerrenda, Tolosako udaleko iragarki taulan argitaratuko da, eta hiru lanegunetako epea izango dute izangaiek



TOLOSAKO  
UDALA

erreklamazioen bat aurkezteko edota akatsik balego, hauek zuzentzeko.

Erreklamazioei erantzuna emango zaie hautagaien onartuen eta baztertuen zerrenda onartzen den ebazpenean, bertan lehen frogaren ordua, tokia eta eguna azalduko delarik.

## **6.- EUSKARAKO FROGA**

Modu dokumentatuan hala frogatu ez duten parte-hartzaileek Tolosako Udaletxean agertu behar dute euskararen ezagutza akreditatzeko probak egiteko esandako ordu eta egunean. Posturako behar den euskara maila 3. hizkuntz eskakizunari dagokiona da.

Azterketa horrek ez du balio ofizialik izango 3. hizkuntz eskakizuna akreditatze aldera; lanpostu honetako aukeraketa-prozesuan parte hartzeko baino ez du balio izango.

## **7.- HAUTAKETA FASEA**

### **A.- OPOSIZIOA. Derrigorrezkoa eta baztertzailea izangai guztientzat.**

Egin beharreko probak hauek dira:

a) Froga praktikoa: bi atalez egongo da osatua, batetik dultzainako ikasle bati klase bat eman beharko diote hautagaiek; bestetik, dultzainako pieza bat jo beharko dute. Froga hau gainditzeko, gutxienez 50 puntuetatik 25 atera behar dira.

### **B.- LEHIAKETA.**

Epaimahaiak eranskinean azaltzen diren meritu hauek baloratuko ditu, baldin eta alegatu eta behar bezala egiaztatuta badira.

## **8.- EPAIMAHAIA.**

Epaimahai kalifikatzailea honako hauek osatuko dute:

LEHENDAKARIA: Udaleko Idazkaria



TOLOSAKO  
UDALA

BOKALAK : Udaleko Musika Eskolako Zuzendaria.  
Udaleko Musika Eskolako Idazkaria  
Dutzainan adituak diren bi kide, irakasleak.

IDAZKARIA:Giza Baliabideetako teknikaria.

### 9.- DEIALDI HUTSA.

Epaimahaiaren iritziz oposiziogileek egindako proben emaitzak egokiak ez badira lanpostua behar bezala betetzeko, deialdia hutsik utzi lezake Epaimahaiak.

### 10.- GORABEHERAK.

Ager daitezkeen zalantzak erabakitzeko eta oinarrietan aurreikusten ez denaz bidezko diren erabakiak hartzeko ahalmena du Epaimahaiak.

Tolosa, 2018ko irailaren 19an.

ALKATEA

Stua. Olatz Peon Ormazabal



## ERANSKINA

### 1. ESPERIENTZIA IRAKASKUNTZAN

**Gehienez 10 puntu eman ahal izango dira.**

- a) Lortu nahi den lanpostuari dagokion plazan ikasturte osoa irakaskuntza publikoan edo pribatuan: 1,50 puntu. Gehienez 4 puntu eskuratu ahal izango dira.
- b) Aurreko atalean adierazten diren lanpostuetan irakaskuntza publikoan edo pribatuan ikasturte osora iristen ez den aldia (sei hilabetetik behera). Hileko 0,2 puntu. Gehienez, 2 puntu.
- c) Ikasturte osoa irakaskuntza publikoan edo pribatuan, a) atalean baloratutako lanpostua ez den beste batean, beti ere musikaren alorrean: 0,75 puntu. Gehienez, 1,5 puntu.
- d) Aurreko atalean adierazten diren lanpostuetan irakaskuntza publikoan edo pribatuan ikasturte osora iristen ez den aldia (sei hilabetetik behera). Hileko 0,1 puntu. Gehienez, 0,5 puntu.
- e) Emandako eskola magistral, ikastaro edo mintegi bakoitzeko: 0,5 puntu. Gehienez, 2 puntu.

Aurreko a) eta c) atalen ondorioetarako, ikasturte osotzat joko da gutxienez 6 hilabeteko zerbitzu efektiboz osatutako aldia, ekainaren 30ean zenbatuta. Bestalde, b) ataleko zerbitzuak ikasturteko bakoitzeko ekainaren 30a arte zenbatuko dira. Ikastetxe batean baino gehiagotan aldi berean emandako zerbitzuen puntuazioak ezin izango dira metatu.

### 2. BESTELAKO MERITUAK

**Gehienez 10 puntu eman ahal izango dira.**

- a) Edozein musika espezialitatetan Musikako Goi Mailako Titulu edo Lizentziatura bakoitzeko: 1,5 puntu. Gehienez, 3 puntu.
- b) Edozein musika espezialitatetan Musikako Erdi Mailako Titulu edo Diplomatura bakoitzeko: puntu 1. Gehienez, 2 puntu.
- c) Lortu nahi den lanpostuaren espezialitatean hobekuntzako kurtso oso bakoitzeko: puntu 1. Gehienez, 2 puntu.
- d) Lortu nahi den lanpostuaren espezialitatean hobekuntzako ikastaroak. 10 orduko, 0,1 puntu. Gehienez, puntu 1.



TOLOSAKO  
UDALA

(Ordu kopuruak egiaztatzen ez dituenari minimoa emango zaio: 0,1 puntu).

e) Bestelako merituek, baldin eta adierazi badira eta egiaztagirik badute, 2 puntu, gehienez, hurrengo baremo hauei jarraituz:

- Emandako kontzertuak. Bakoitzeko, 0,25 puntu; gehienez, puntu 1.
- Egindako grabazioak. Bakoitzeko, 0,25 puntu; gehienez, puntu 1.
- Argitalpenak. Bakoitzeko, 0,2 puntu; gehienez, 0,4 puntu.
- Bestelako musika ikasketak. Bakoitzeko, 0,2 puntu; gehienez, 0,4 puntu.